

Itsasoa kaiolan

Zientziaren sukarrak eraginda, XX. mende hasieran erruz ugartu ziren akuarioak itsasertzeko herrietan. Ehun urteren buruan, ozeanario deitzen diete, eta izena aldatu arren, helburuak lehengoan jarraitzen du: ur azpiko fauna eta flora berregin, eta itsasoko mundua jendeari hurbiltzea. Ezagutzen den hori hobeki zaintzen denez, erakusteaz gain, beste hiru funtzio ere betetzen dituzte akuarioek: kontserbatzea, ikertzea eta jendeari ikusaraztea oso garrantzitsua dela planeta babestea. Instalazio konplexuak izaten dira, ongi antolatu beharrekoak, eta horixe izaten da biologo eta bestelako profesionalen lana. Itsasoek duten bioaniztasuna eta ekosistema ondare unibertsaltzat hartzekoak dira, nahiz eta ur azpian gordeta daudela iruditu.

Eguneroko mantentze-lanak.

Goizeko lehen orduetan hasten da jarduna eremu pribatuek eta publikoek osatzen duten labirintoan. Akuarioaren muina, bisitariak ikusten dutena, kristalezko aretoek eta korridoreek osatzen dute. Jendea sartzen hasi aurretik, akrilikoak eta metakrilatoa aztertzen dituzte, urari begiratu bat ematen diote eta guztia bare-bare dagoela egiaztatzen dute. Kristalaz beste aldera, berriz, uretan alegia, lanak ez du etenik. Ur laginak hartu, eta gainerako osagai guztiak kontrolatzen dituzte: iragazkiak, sentsoreak, hodiak, tutuak, konpresoreak eta ura aldatzen duten ponpak. Sistema guztia informatizatua dago, baina etengabe ikuskatzen dituzte atalak.




Berrogeialdian.

Akuarioetan izaten diren animalia eta landareak itsasotik iristen dira hara edo gatibutasunean hazten dituzte, baina jatorri bat edo bestea izan, kristal osteko uretan igeri hasi aurretik, berrogeialdian edukitzen dituzte. Imitazioa bikaina izan arren, eta flora eta fauna habitat berdinean bizi izan arren, kontuz ibili behar da, biztanle berriek aldaketak eragin ditzakete eta azidoetan eta mikroorganismoetan, eta hori arrisku-tua izango litzateke. Hori saihesteko, espezie guztiak, txiki eta handi, tanga txiki batzuetan jartzen dituzte lehen egunetan, uretara igaro aurretik. Prozesu zaila izaten da berrogeialdiko, baina funtsezkoa aldi berean, hortxe girotzen baitira arrainak, hortxe ohitzen dira elikagai berriak jatera, eta hortxe kentzen dizkiete parasitoak eta sendatzen zauriak. Arraina egoera onean dagoenean, erakusgarri jarriko dute besteekin batera.



Laborategia eta haztegia.

Elikadura-katea diseinatzeko, laborategiak eta sukaldeak erabiltzen dituzte. Lehenbizikoetan, urak gainbegiratu dituzte, jokabideak ikertzen, arazoak aztertzen eta irtenbideak saiatzeko. Helburua izaten da parametro osasungarriari eustea, bai tenperatura aldetik eta bai gaitasun aldetik, animalia eta landareek bizirik jarrai dezaten. Fitoplanktona eta artemia hazteko ere saiakuntza-hodiak erabiltzen dituzte, laborategietakoan



gisakoak (batzuk oso handiak izaten dira), eta jaki bizi horiekin elikatzen dituzte marmoka eta larbak, baita itsas zaldi jaioberriak ere. Zooplanktona ere arretaz zaintzen dute, koralek elikagaia baita. Sukaldeetan, berriz, animalia handientzako jatena prestatzen dute: legatz zatiak, muskuiluak eta marrazoen otordu berezi-bereziak.

Elikadura.

Zaintzaileen lana da arrainei jaten ematea, berdin jaki mikroskopikoak eta berdin mokadu handienak. Espezie bakoitzak tratamendu eta zainketa jakina eskatzen du. Donostiako Aquariumean, zezen-marrazoa da arrain guztietan harrigarriena. Arra eta emea bizi dira, eta ezin zorrotzago zaintzen dute haien elikadura. Era horretan lortzen dute animaliak elkarrekin bizi izatea, bake-bakean, eta pisua ere holaxe kontrolatzen diete, behar-beharrezkoa baita hori haien osasuna zaintzeko.



Garbitasuna.

Akuarioetan ez da izaten urak garbituko dituen ur-korronterik, eta animaliek ezin dute ihes egin gune toxikatuetatik. Horrexegatik, garbitasuna funtsezkoa da. Egunero hodiak xurgatzen dute hondoa geratu den zikinkeria (gorozkiak, algak edo janari-hondarrak). Modu mekanikoan egiten dute, eremu bakoitzari dagozkion tresnak erabiliz, baina eremua desegokia bada hodiak erabiltzeko, urpekariek garbitzen dituzte paretak, zorua eta apaingarriak.

Biziaren zikloa.

Akuario batera joateak aukera ematen du irudikatzen zer izango ote zen Nemo kapitainaren urpekoan bidaiatzea, 20.000 legoako bidaia itsaspean egin zuen hartan. Kristaletik harago, itsas hondoetako bizitza eskuraezina dabil igeri. Baina akuario bat ez da erakuslehoi soila, milioika metro kubiko urez beteta dauden ontziz osatua, non era guztietako animalia eta landareen zikloak ikus daitezkeen: arrain tropikalena, koralea, atunena, marmokena, dortokena... Zentro zientifikoak ere badira akuarioak, eta itsas fauna eta flora ikertzeko eta kontserbatzeko lanean aritzen dira. Ingurumen-proiektuak ere lantzen dituzte, itsasoaren osasunak zuzenean eragiten baitio planetaren beraren osasunari, eta gaur egun, egia esan, kili-kolo dabilta itsaso asko, gizakiaren erruz, jakina.